

Gida didaktikoa

**HAN ETA HEMENGO
IPUINAK I**

**EDURNEZURI
ETA ZAZPI IPOTXAK**

EDURNEZURI ETA ZAZPI IPOTXAK

Gida didaktikoaren azalpena

- Gai-zerrenda : 1. or.
- Helburuak 2. or.
- Jarduerak 2. or.
- 1.- Ahozko hizkuntza 5. or
- 2.- Idatzizko hizkuntza 6. or
- Gidoi literarioa 4. or.

Bibliografia 15.or.

Egileak 16.or.

GIDAREN AZALPENA:

Ipuin hau, testu guztiak bezala, testu-sekuentzia bat da: narrazioa eta elkarrizketak tartekatuturik daude. Deskripzioa irudiek egiten dute.

Testuaren batasuna galdu gabe, testu guztiei komunak zaizkien ezaugarriak aipatuko ditugu, eta horren inguruan landu daitekeena. Irakasle bakoitzak jakingo du zer eta noiz landu.

Testuen ezaugarriak bata bestearen atzean aipa badaitezke ere, lana egiterakoan ez da hain erraza ezaugarri bakarra lantzea edota eskemari pausoz pauso jarraitzea.

Lanari funtzionalitate handiena eman ahal izateko, komeni da proiektuaren forma ematea.

Proiektua hauxe litzateke: gelan ipuinak elkarri kontatzea, ondo pasatzeko.

Aldi berean, hizkuntzazko ariketa zuzenduagoak antola daitezke. Beste aldetik, Barbantxok duen arazoa beste hurrek ere izan dezakete, batzuen gehiegikeria jasan behar izaten baitute. Horren gaineko "eztabaida" egin daiteke, talde txikian.

HELBURUAK:

Ordena kronologikoari jarraituz, fikziozko narrazioa zein errealitatean oinarritutakoa egitea, aditz-denbora egoki erabiliz.

Ekintzak, ordena kronologikoari jarraituz, ahoz kontatzen jakitea, irakaslearen laguntzaz. Jarduera kontrolatuen bidez eta egoera kontestualizatuetan, elkarrizketa jakin batzuen imitazioan parte hartzea.

Hiztegia eta esanahi berriak bereganatzea.

JARDUERAK:

1.- Ahozko hizkuntza:

Proiektua: Talde batek ipuina ikusiko du eta, besteei kontatzeko, paperez egindako siluetak erabiliko ditu.

FASEAK:

a) Mezuaren planifikazioa:

Kontakizuna prestatzerakoan, lehendabiziko gauza GAIA zehaztea da. Orduan da ipuinaren HARI KRONOLOGIKOARI jarraitzeko eta IPUINAREN ATAL nagusiak zehazteko aukera.

Hori egiten dugunean, KOHERENTZIAz arduratzen ari gara:

Gaiaren progresioa: ipuina hari kronologikoari darraio.

Irakasleak hurrei galderak egingo dizkie, ipuina ordenan gogorarazteko.

Narrazioaren haria argi utzi dugunean, hondoa eta figura ongi bereizteko, aditz-denbora eta aspektua ongi erabilarazten saiatuko gara. Hartara, hurrek kontatzen dutena irakasleak errepikatuko du, osatzeko, edo galderak egingo dizkie, ilun geratu dena argitzeko.

Adibidez:

Behiak Barbantxo egunero jaten zuen ala egun batean jan zuen?

SEMANTIKA:

Hainbat erregistroren esanahia gogoratu edo ziurtatu behar da: behia, soroa, bazkaria, txantxa, jasan, aitzurra, erein, kiratsa, azkarra...

b) Testualizazioa: (Jarri mezuari hitz eta esapide zehatzak, eta eman AHOSKATZE eta INTONAZIO EGOKIA).

AHOTSAK: ondo zehaztuko ditugu Narratzailea eta Pertsonaiak, bai eta zer esan behar duten ere.

- Pertsonaien siluetak egin eta hurrek silueta bana hartutakoan, ipuinaren laburpena antzeztuko dute. Hartara, ikasle guztiek jakin behar dute zenbat pertsonaia diren eta zer esan behar duten. Ez ahaztu haur batek narratzailearen rola egin behar duela.

KOHESIOA

Narratzailearen rola zehazterakoan, honako eduki hauek lantzeko aukera izango dugu:

Izenen kohesioa:

Subjektuaren eta aditzaren arteko komunztadura.

Objektuaren eta aditzaren arteko komunztadura.

Aditz kopulatiboen PARADIGMAK:

NOR, NOR-NORK, NOR-NORI, NOR-NORI-NORK.

Aditz kopulatiboak: hondoa eta figura. Aditz-denbora eta aspektua:

Denborazko antolatzaileak.

Aditzondoa eta deklinabideko markak: -n, -(r)ekin, -(r)i, -(r)a.

Ariketa kontrolatuak:

FUNTZIO jakin batzuetan zer hizkuntza erabil daitekeen irakasteko edo ikasitakoa praktikatzeko:

- Jarduera: Elkarrizketako zati honen imitazioa. Informazioa eskatzea ("gurasoek") eta azalpenak ematea ("Urkik").

- Elkarrizketako zati honen imitazioa: Adarra jotzen.

ARGI: Kopeta behar da gero!

ALAI: Besteren etxean sartzeko.

MARMARTI: Eta besteren ohean lo egiteko!

EDURNE: (AD LIB-AK) (NEGAR)

TXINTXO: Gurasoek ez dizute gizalegerik irakatsi?

ALFER: Ez dakizu hitz egiten?

BERRITSU: Ez egin mainarik!

TXIKI: Begira ezazue zer lortu duzuen, uztazue bakean!

ARGI: Ez beldurtu, txantxa zen!

ALAI: Ziria sartu dizugu, je, je!

MARMARTI: Amua irentsi duzu, je, je!

EDURNE: (OFF) (AD LIB) (ZOTINAK) (ON) (NEGAR) (OFF)

TXINTXO: Inozoa zara gero! Txantxetan ari ginen.

ALFER: Ez gara gaiztoak, lasai.

BERRITSU: Zergatik zaude horren triste?

TXIKI: Gure harreragatik, jakina!

- Elkarrizketako zati honen imitazioa: Itxurak egiten.

EIDER: Kaixo, neskato!

EDURNE: Ai...! A ze sustoa eman didazun!

EIDER: Zuen etxea ikusi dut, eta egarriak jota nagoenez, ba... ur pixka bat eskatzera etorri naiz.

EDURNE: (AD LIB) Nor zara zu?

EIDER: Ez zaitetz beldurtu, laztana. Basoaren beste aldean bizi naiz; zure lagunek ezagutzen naute. Tira, emango didazu ura ala ez? Bestela... ez naiz etxera inoiz helduko.

EDURNE: Bai, bai, itxaron hemen.

EIDER: (BARREAK)

LAMIA: (OFF) Edurne etxean sartu zen. Ez zuen antzeman mozorro haren pean amaordea zegoenik eta lasai joan zen ur bila.

EDURNE: Hemen duzu.

EIDER: Eskerrik asko! (AD LIB) Egarriak itotzen nengoen!

EDURNE: Gehiago nahi duzu?

EIDER: Ez, banoa.

LAMIA: (OFF) Orduan, eskua zorroan sartu zuen, eta sagar gozo bat eskaini zion.

EIDER: Hartu, sagar hau zuretzat.

EDURNE: Eskerrik asko.

EIDER: Agur, polit hori!

EDURNE: Eskerrik asko, amona! Eskerrik asko! Agur!

AHOTSAK:

- Irakasleak ipuina kontatuko die hurrei, pertsonaia batek dioena beste baten ahotan jarrita.

Adibidez: Eiderrek honela esan zion ipotx bati: "Hartu, sagar hau zuretzat".

Edo: morroiak hauxe esan zion amaordeari: "Aitari esango diot, eta orduan ikusiko duzu!"

- Pertsonaia ezkutua: Irakasleak pertsonaia baten silueta ezkutatuko du. Hurrek nor den esan behar dute, irakasleak esaten duenaren arabera.

Adibidez: "Ni Edurneren zaindaria naiz. Nahi baduzue, bere etxeraino lagunduko dizuet." "Ez nauzu berriro txikituko, gaizto horrek!" "Agur, alaba maitea, izan zorientsu." ... Nork esanak dira?

DEKLINABIDEA eta JUNTAGAILUAK:

- Egin galderak: ... Nortzuk ezkondu behar ziren? Norekin gogoratzen zen Edurne? Nor zen Edurneren zaindaria? Nork eraman zuen basora? Zergatik? Katagorriak nora eraman zuen Edurne? Noren etxean geratu zen bizitzen?...

- Gezurrak kontatzen:

Edurne amaordeak asko maite zuen. Gizon batek bahitu zuen eta eraman zuen. Edurneren amaordea oso polita zen. Ispiluari asko gustatzen zitzaion tratu txarrak jasatea. ...

ADITZ-KOHESIOA: figura, hondoa, denborazko antolatzaileak eta aditz-aspektua:

- Egin honelako galderak:

Amaordeak zergatik bota zuen Edurne? Nori agindu zion basora eramateko? Edurnek nola aurkitu zuen ipotxen etxea? Amaordeak nola aurkitu zuen Edurne? Amaordea noiz hurbildu zen Edurnerengana? Nola geratu zen Edurne sagarra jan ondoren? ...

2.- IDATZIZKO HIZKUNTZA:

Proiektua: ipuin-bilduma egitea.

Idatzi ipuina, marraztu, margotu eta jarri azala.

(Ipuinaren luzera ikasleen idazmenaren arabera izango da).

Idazten dakitenek zirriborroa egin dezatela, eta irakasleak zuzenduko die. Garbira pasatu ondoren, egin marrazkiak eta egin azala, izenburua jarrita.

Idazten ez dakitenez:

Ipuina idazteko, hurren diktaketan oinarritu gaitezke. Pasatu testu hori garbira, eta eman fotokopia hurrei.

Bestela, honelako zerbait ematen ahal zaie, folioetan banatuta, marrazkia egin dezaten.
Han eta hemengo ipuinak I: Edurnezuri eta zazpi ipotxak
Bazen behin jauregi zoragarri bat. Leku ezin ederragoan zegoen. Haren dorre garaietatik ibai zurrumurrutsuak ikusten ziren, lursail emankorrak, eta baso sarri bezain sakonak.
Jauregian neska on eta polit bat bizi zen. Edurne zuen izena.
Ama hil zitzaion txikia zenean, eta aitarekin bizi zen. Aitak izugarri maite zuen bere alabatxoa.
Katagorriak ere maite zuen, eta egunero arrosa bat eramaten zion.
Izan ere, Edurnek izugarri atsegin zituen gazteluaren inguruetan hazten ziren arrosak. Arrosa bat hartu eta usaintzen zuen bakoitzean, amarekin gogoratzen zen. Eta haren usain ederra eta azal leuna ekartzen zituen gogora.
Amaordeak, aldiz, ezin zuen onartu Edurne bera baino politagoa izatea.
Diru-kutxa bat hartu eta Edurne basora eramateko agindu zion gizon bati.
Hala ba, denak lotan zeudenean, gizona Edurneren logelan sartu zen. Hura esnatu, eta basora eraman zuen berekin.
Bakarrik geratu zenean, Edurne basoa arakatzen hasi zen urduri. Gero, etsi-etsita, negarrez hasi zen. Orduan, katagorria hurbildu zitzaion.
Katagorriari jarraitu zion, basoa zeharkatu zuten eta, azkenik, etxe batera heldu ziren.
Eta etxe barrura sartu zen. Dena arakatu ostean, ohe txiki batzuk aurkitu zituen. Oso nekatuta zegoenez, ohe batean etzan zen, eta hantxe loak hartu zuen.
Esnatu zenean, zazpi ipotx zeuzkan bere inguruan. Ipotxekin geratu zen bizitzen.
Eider, amaordea, sutan jarri zen enteratu zenean. Atso zaharraren itxura hartuta, basoan sartu zen, ipotxen etxera joateko.
Ipotxak egunero basora abiatzen ziren lan egitera. Neskatoa lasai eta gustura zegoen: aitaren falta sumatzen bazuen ere, ipotxen adiskidetasunak lasaitzen zuen. Bat-batean, Eider amaordea agertu zitzaion.
Edurne etxean sartu zen. Ez zuen antzeman mozorro haren pean amaordea zegoenik, eta lasai joan zen ur bila.
Orduan, amaordeak eskua zorroan sartu zuen, eta sagar gozo bat eskaini zion.
Edurne gaixotu egin zen. Lurrera erori eta lo geratu zen.
Ipotxak basotik itzuli zirenean, Edurne lurrean ikusi zuten, eta sagarra haren ondoan. Berehala asmatu zuten zer gertatu zen.
Ipotxak berehala hasi ziren jauregirako bidearen bila. Ipotx txikia Edurnerekin geratu zen.
Musuak eta musuak eman zizkion esnatzeko ahaleginean, baina alferrik.
Ipotxek ezin zuten inola ere gaztelurako bidea aurkitu, basoa zabalegia baitzen.
Katagorriak ere igarri zion zerbait txarra gertatu zela, eta Edurneren ondora joan zen. Hosto batzuk ekarri zituen, eta Edurneren ezpainetan jarri, goxo-goxo.
Ipotxak, etsita, etxerantz abiatu ziren. Bitartean, Edurne bere onera itzuli zen poliki-poliki. Eta ipotxak heldu zirenean, Katagorriak laguntza eskaini zien.
Bidaia luzea egin eta gero, jauregira heldu ziren.
Gazteluan, aita oso triste zegoen, negarrari eutsi ezinik.
Hura zen aitaren poza! Edurne besarkatu zuen, ezin zuen sinetsi.
Harrezkero, Edurne jauregian bizi izan zen aitarekin. Eta egunero jasotzen zuen katagorriak uzten zion arrosa. Usaintzen zuenean, ama zetorkion gogora.
Katagorriak, berriz, Edurne zaintzen jarraitu zuen, horrekin konformatzen baitzen.
Amaordeak ihes egitea lortu zuen, eta oraindik ere amorruez beterik dabil. Hori da amorrua gero!
Hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila Derioko plazan.
Azala haurrek idatz dezakete.
Irakurtzen eta idazten hasteko, honelako ariketak egin daitezke:

- Emandako hitzen artean, aurkitu "Katagorria", "Edurne", "Marmarti", "Txiki", "Alfer", "Berritxu", "Txintxo" hitzak.
- Emandako hitz baten bariazioen artean, bereizi eredu bezalakoa dena. "Katagorria", "Edurne", "Marmarti", "Txiki", "Alfer", "Berritxu", "Txintxo" "Batagorria", "Datagorria", "Hatagorria", "Katagorria", "Latagorria"
- Kopiatu honako hitzak eskuz: "Katagorria", "Edurne", "Marmarti", "Txiki", "Alfer", "Berritxu", "Txintxo".
- Honako hitz hauen artean, aurkitu berdintasunak: "Katagorria", "Edurne", "Marmarti", "Txiki", "Alfer", "Berritxu", "Txintxo".
- Osatu hitza: K_t_g_rr_a....

2.4.- GIDOIA EDO BLOKEKAKO LABURPENA, DENBORA ZEHAZTUZ.

Kapitulu guztiak erlazionaturik daude, denen artean abentura bat osatzen dutelako.

Kapitulu baten egitura:

- Karatula: minutu bat.
- Narratzailea: 2/4 minutu.
- Kondaira: 16/20 minutu.
- Kredituak: minutu bat.

Gidoi literarioa:

Edurnezuri eta zazpi ipotxak

LAMIA: (OFF) Bazen behin jauregi zoragarri bat. Leku ezin ederragoan zegoen. Haren dorre garaietatik ibai zurrumurrutsuak ikusten ziren, lursail emankorrak, eta baso sarri bezain sakonak. Hara, katagorri bat!

KATAGORRIA: (AD LIB)

LAMIA: Baina, zertan dabil? Arrosa hartu du haginaren artean!

KATAGORRIA: (AD LIB)

KATAGORRIA: (AD LIB)

LAMIA: Norentzat ote da arrosa hori? A, bai, badakit! Jauregian neska on eta polit bat bizi zen. Edurne zuen izena.

AITA: (TARTEAN) (AD LIB)

EDURNE: (TARTEAN) (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Ama hil zitzaion txikia zenean eta aitarekin bizi zen. Aitak izugarri maite zuen bere alabatxoa. Baina, egun batean,...

AITA: Gauza bat esan behar dizut, Edurne: berriro ezkonduko naiz.

EDURNE: Norekin, aita?

AITA: Bihar etorriko da, eta aurkeztu egingo dizut; ondo da?

EDURNE: (AD LIB) O, ba... Maitemindu zara?

AITA: Bai.

EDURNE: Ondo da. Baina, maitatuko nau?

AITA: Maitatuko ez zaitu ba? Ziur nago ondo konponduko zaretela.

EDURNE: Eta hala ez balitz?

AITA: Ez zaitetz ezkorra izan, ados? Amaordea izango duzu, dena ondo aterako da.

LAMIA: (OFF) Edurne ez zegoen ziur.

EDURNE: Tira... ondo da.

AITA: Orain, lo egin ezazu, bihar goizean goiz esnatuko zaitut eta.

AITA: (AD LIB) Ondo lo egin, laztana!

EDURNE: Bai, aitatxo. E... nola du izena?

AITA: Eider; bihar ezagutuko duzu. Orain, lo egin, e?

EDURNE: Bihar arte.

5:16

LAMIA: (OFF) Baina Edurne egon ezinik zegoen.

EDURNE: Aita...

AITA: Zer, bihotza?

EDURNE: Emadazu beste musu bat. (AD LIB)

AITA: (AD LIB) Ezin duzu lorik egin?

EDURNE: (NEGAR-ZOTINKA) Amarekin gogoratu naiz. (AD LIB)

AITA: Ni ere bai. Askotan...! (AD LIB)

AITA: Asko maite genuen elkar... (AD LIB) Ez dugu inoiz ahaztuko, ezta?

EDURNE: (AD LIB)

EDURNE: Ez horixe! (NEGAR) Ez dugu inoiz ere ahaztuko, aitatxo.

AITA: Tira, Edurne, amak ez luke nahiko zu triste egotea. Zoriontsu bizi behar dugu, amak horixe nahi zuen-da. Ados?

EDURNE: Bai, egia da. Bai, aitatxo. (AD LIB) Gabon.

AITA: Gabon.

EDURNE: Aita!

AITA: Zer?

EDURNE: Geratuko zara hemen, ni loak hartu arte?

AITA: (AD LIB)

EDURNE: (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Aitak ondo estali zuen eta ondoan geratu zen Edurne loak hartu zuen arte. Hara! Zertan dabil katagorria? Zergatik zaintzen du Edurne?

EDURNE: (AD LIB) (TARTEAN)

KATAGORRIA: (AD LIB) (TARTEAN)

LAMIA: (OFF) Izan ere, Edurnek izugarri atsegin zituen gazteluaren inguruetan hazten ziren arrosak. Arrosa bat hartu eta usaintzen zuen bakoitzean, amarekin gogoratzen zen. Eta haren usain eder eta azal leuna ekartzen zituen gogora.

LAMIA: (OFF) Baina, eta amaordea?

7:50

EIDER: (AD LIB) Ispilu magiko hori, nor da emakumerik politena?

ISPILUA: (OFF) Edurne.

EIDER: E? Nola izan liteke hori? Ni naiz!

ISPILUA: (OFF) Izan zara bai, baina Edurne oso neska ederra bihurtu da; ez zara konturatu?

EIDER: (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Amaordeak ezin zuen onartu. Edurne bera baino politagoa? Ezta pentsatu ere!

EIDER: Hori ez da egia! Ni naiz ederrena!

ISPILUA: (OFF) Ez horixe! Ez al zara konturatu bera gero eta ederragoa dela?

EIDER: Ispilu gezurti hori! Zeureak eta bost emango dizkizut! (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Amaordeak ispilua apurtu zuen. Hala ere, ispilu zatiek aho batez errepikatzen zioten lelo berbera!

ISPILUA: (OFF) Edurne da emakumerik politena!

EIDER: Ez! Ez, hori ez da egia!

ISPILUA: (OFF) Edurne da emakumerik politena!

EIDER: Ispilu madarikatua!

ISPILUA: (OFF) Edurne da emakumerik politena!

EIDER: Isil zaitez, ixo!

LAMIA: (OFF) Hura zen amaordearen haserre! Diru kutxa bat hartu eta Edurne basora eramateko agindu zion gizon bati.

EIDER: Neska basora eraman eta hantxe utzi behar duzu.

GIZONA: Baina hil egingo da!

EIDER: Horixe bera nahi dut!

EIDER: Gaur gauean, lotan dagoenean, hartu eta eraman ezazu. Ulertu duzu? (AD LIB)

GIZONA: Tira, bai, bai... horrelaxe egingo dut.

EIDER: Eta ez esan inori gero!

GIZONA: Ez, andrea, ez diot inori hitzik esango.

EIDER: Hobe izango duzu!

LAMIA: (OFF) Hala ba, denak lotan zeudenean, gizona Edurneren logelan sartu zen. Hura esnatu, eta basora eraman zuen berekin.

EDURNE: (AD LIB)

GIZONA: (AD LIB) Ixo! (AD LIB)

EDURNE: Zergatik ekarri nauzu hona? Eraman nazazu etxera!

GIZONA: Ezin dut.

EDURNE: Aitari esango diot, eta orduan ikusiko duzu!

GIZONA: Zure amaordeak agindu du, ezin zara jauregira itzuli.

EDURNE: Aitari esango diot dena.

GIZONA: Sentitzen dut, baina ezin zara itzuli. Zoaz hortik, ea ilundu baino lehen aterperen bat aurkitzen duzun. Ni banoa.

EDURNE: (AD LIB)

(ALDI BEREKOIA)

LAMIA: (OFF) Beldurtuta, Edurnek gizonari jarraitu nahi zion. Baina neskato errukiorra ikusita pena sentitu bazuen ere, gizonak ez zion lagundu.

EDURNE: (AD LIB) Ez, ez nazazu hemen bakarrik utzi! Arren! (AD LIB)

GIZONA: (AD LIB) Neska gaixoa! Ezin zaitut eraman, sentitzen dut.

LAMIA: (OFF) Bakarrik geratu zenean, Edurne basoa arakatzen hasi zen urduri. Gero, etsi-etsita, negarrez hasi zen. Orduan, katagorria hurbildu zitzaion.

EDURNE:(AD LIB)

KATAGORRIA: Kaixo, Edurnezuri. **10:56**

EDURNE: Zer?

KATAGORRIA: Edurnezuri, etxe bat aurkitu behar duzu gauak harrapatu baino lehen!

EDURNE: Nik ez dut basoa ezagutzen.

KATAGORRIA: Nik bai, ordea. Zatoz nirekin.

EDURNE: (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Edurnek ez zuen piperrik ere ulertzen, baina haren laguntza onartu zuen. Katagorriari jarraitu zion, basoa zeharkatu zuten eta, azkenik, etxe batera heldu ziren.

LAMIA: (OFF) Bat-batean katagorria desagertu egin zen. Edurne bila ibili zitzaion, baina alferrik. Eta etxe barrura sartu zen. Dena arakatu ostean, ohe txiki batzuk aurkitu zituen. Oso nekatuta zegoenez, ohe batean etzan zen, eta hantxe loak hartu zuen.

EDURNE: (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Esnatu zenean, zazpi ipotx zeuzkan bere inguruan. Eta, itxura batean behintzat, haserre bizian zeuden.

ARGI: Kopeta behar da gero!

ALAI: Besteren etxean sartzeko.

MARMARTI: Eta besteren ohean lo egiteko!

EDURNE: (AD LIB-AK) (NEGAR)

TXINTXO: Gurasoek ez dizute gizalegerik irakatsi?
ALFER: Ez dakizu hitz egiten?
BERRITSU: Ez egin mainarik!
TXIKI: Begira ezazue zer lortu duzuen, uztazue bakean!
ARGI: Ez beldurtu, txantxa zen!
ALAI: Ziria sartu dizugu, je, je!
MARMARTI: Amua irentsi duzu, je, je!
EDURNE: (OFF) (AD LIB) (ZOTINAK) (ON) (NEGAR) (OFF)
TXINTXO: Inozoa zara gero! Txantxetan ari ginen.
ALFER: Ez gara gaiztoak, lasai.
BERRITSU: Zergatik zaude horren triste?
TXIKI: Gure harreragatik, jakina! 13:12
EDURNE: Ez. (AD LIB) Basoan abandonatu naute, ez nekien non gorde, eta, orduan, zuen etxea ikusi dut.
ARGI: Nork, baina?
ALAI: Zergatik?
MARMARTI: Gera zaitetz hemen!
EDURNE: (AD LIB)
TXINTXO: Nahi baduzu.
ALFER: Poztuko ginateteke.
EDURNE: (AD LIB)
LAMIA: (OFF) Ipotxek itxura ona zutenez,...
BERRITSU: Orduan, bai?
EDURNE: Bai, bai. (AD LIB)
TXIKI: Ederki! Ez zaizu damutuko!
LAMIA: (OFF) Ipotxak pozak txoratzen zeuden. Lagun berri bat! Bai ondo!
BERRITSU: Nola duzu izena?
TXINTXO: Zer egingo duzu?
TXIKI: Ederki! Ez zaizu damutuko!
MARMARTI: Zer esango diozu aitari?
ALAI: Etxera itzuliko zara?
ARGI: Afaria gustukoa duzu?
ALFER: Nekatuta zaude?
TXIKI: Egongo ez da ba? Galderaz josi dugu eta!
EDURNE: O, ba... (AD LIB) Nire izena Edurne da. Eta zuena?
TXIKI: Berritsu.
BERRITSU: Kaixo!
TXIKI: Alfer.
ALFER: Kaixo!
TXIKI: Txintxo.
TXINTXO: Kaixo!
TXIKI: Marmarti.
MARMARTI: Kaixo!
TXIKI: Alai.
ALAI: Kaixo!
TXIKI: Argi.
ARGI: Kaixo!
TXIKI: Eta ni, Txiki.
LAMIA: (OFF) Hurrengo goizean, ipotxak basoraino joan ziren lanera.
TXINTXO: Oe, oe, oe, lanera goaz!

TXIKI: Oe, oe, oe, lanera goaz!
BERRITSU: Oe, oe, oe, lanera goaz!
ALFER: Oe, oe, oe, lanera goaz!
MARMARTI: Oe, oe, oe, lanera goaz!
ALAI: Oe, oe, oe, lanera goaz!
ARGIA: Oe, oe, oe, lanera goaz!
(ALDI BEREKOA)
LAMIA: (OFF) Behin ispilu magikoa konponduta, amaordeak galdera bera egin zion.
EIDER: Esaidazu, ispilu hori, nor da politena?
ISPILUA: (OFF) Edurne.
EIDER: E? Baina, baina... (AD LIB) Zer esan duzu? Hori ezin liteke izan!
ISPILUA: (OFF) Ba, halaxe da. 15:31
EIDER: Jakin daiteke non den?
ISPILUA: (OFF) Basoko etxe batean.
EIDER: A! Ai! Hau amorrua! Oi! Ai! (AD LIB)
LAMIA: (OFF) Ispilua, amaordeak ez apurtzeko, desagertu egin zen.
ISPILUA: (OFF) Ez nauzu berriro txikituko, gaizto horrek!
LAMIA: (OFF) Eider, amaordea, sutan jarri zen. Atso zaharraren itxura hartuta, basoan sartu zen ipotxen etxera joateko.
EIDER: (AD LIB-AK) (BARREAK)
EDURNE: (OFF) Ea, har ezazue beste apur bat. (ON)(AD LIB)
ARGI: (OFF) Ez, ez, mila esker. Ezin dut gehiago.
ALAI: (OFF) (ON) Ezta nik ere!
ARGI: Aaa, ederki bete naiz! (BARRE)
ALAI: Baita ni ere! (BARRE)
EDURNE: Benetan gustatu zaizue?
ARGI: Sukaldari ona zara. Eta lagun hobea!
ARGI: Agur, Edurne!
ALAI: Gero arte!
MARMARTI: Laster arte!
TXINTXO: Berehala gatoz!
ALFER: Ondo pasa!
BERRITSU: Zer egingo duzu bitartean?
EDURNE: Marrazki bat.
TXIKI: Norentzat?
EDURNE: Zuontzat.
TXIKI: Ederki.
EDURNE: (MUSUAK)
(ALDI BEREKOA)
LAMIA: (OFF) Ipotxek, egunero bezala, basora joan behar zuten. Eta banan-banan Edurne agurtu ondoren, joan egin ziren. Neskatoa lasai eta gustura zegoen: aitaren falta sumatzen bazuen ere, ipotxen adiskidetasunak lasaitzen zuen. Bat-batean, Eider, amaordea, agertu zitzaion.
EIDER: Kaixo, neskato!
EDURNE: Ai...! A zer sustoa eman didazun!
EIDER: Zuen etxea ikusi dut, eta egarriak jota nagoenez, ba... ur pixka bat eskatzera etorri naiz.
EDURNE: (AD LIB) Nor zara zu?
EIDER: Ez zaitetz beldurtu, laztana. Basoaren beste aldean bizi naiz; zure lagunek ezagutzen naute. Tira, emango didazu ura ala ez? Bestela... ez naiz etxera inoiz helduko.

EDURNE: Bai, bai, itxaron hemen.

EIDER: (BARREAK)

LAMIA: (OFF) Edurne etxean sartu zen. Ez zuen antzeman mozorro haren pean amaordea zegoenik eta lasai joan zen ur bila.

EDURNE: Hemen duzu.

EIDER: Eskerrik asko! (AD LIB) Egarrak itotzen nengoen!

EDURNE: Gehiago nahi duzu?

EIDER: Ez, banoa.

LAMIA: (OFF) Orduan, eskua zorroan sartu zuen, eta sagar gozo bat eskaini zion.

EIDER: Hartu, sagar hau zuretzat.

EDURNE: Eskerrik asko. **19:11**

EIDER: Agur, polit hori!

EDURNE: Eskerrik asko, amona! Eskerrik asko! Agur!

LAMIA: (OFF) Edurnek margotzen jarraitu zuen. Sasi artean ezkutatuta, amaordea pozarren zegoen, oraingoan bai Edurne akabatuko zuen-da. Gaiztoa zen benetan emakume hura! Sagarrari hozka egin eta berehala, Edurne gaixotu egin zen. Lurrera erori eta lo geratu zen.

TXINTXO: Oe, oe, oe, lanera goaz!

TXIKI: Oe, oe, oe, lanera goaz!

BERRITSU: Oe, oe, oe, lanera goaz!

ALFER: Oe, oe, oe, lanera goaz!

MARMARTI: Oe, oe, oe, lanera goaz!

ALAI: Oe, oe, oe, lanera goaz!

ARGIA: Oe, oe, oe, lanera goaz!

LAMIA: (OFF) Ipotxak basotik itzuli zirenean, Edurne lurrean ikusi zuten, eta sagarra haren ondoan. Berehala asmatu zuten zer gertatu zen.

AARGI: (AD LIB) Pozoitu egin dute!

ALAI: Laguntza eskatzera joan behar dugu!

MARMARTI: Bere aitaren bila joango gara.

TXINTXO: Baina nora?

ALFER: Bat berarekin geratuko da, eta besteok sakabanatu egingo gara.

LAMIA: (OFF) Batzuk hona eta besteak hara, berehala hasi ziren jauregirako bidearen bila. Ipotx txikia geratu zen Edurnerekin. Musuak eta musuak eman zizkion esnatzeko ahaleginean, baina alferrik.

MARMARTI: Nondik izango ote da? (AD LIB)

ALAI: Hemendik egon behar du! (AD LIB)

TXINTXO: Ez, hemendik ez. Handik! (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Basoan bueltaka zabilzan, bidea ezin aurkitu.

BERRITSU: Hortik!

ALFER: Ez, ez... (AD LIB)

TXIKI: (AD LIB)

BERRITSU: Aurkitu duzue?

TXINTXO: Ez, oraindik ez.

ALFER: Non edo non egon behar du ba!

LAMIA: (OFF) Ipotxek ezin zuten inola ere gaztelurako bidea aurkitu, basoa zabalegia baitzen.

LAMIA: (OFF) Katagorriak ere igarri zion zerbait txarra gertatu zela, eta Edurneren ondora joan zen. Hosto batzuk ekarri zituen, eta Edurneren ezpainetan jarri, goxo-goxo.

ARGI: Ene! Horra! Katagorria! (AD LIB) **22:20**

EDURNE: (AD LIB)

MARMARTI: (AD LIB)

ALAI: (AD LIB)

BERRITSU: (AD LIB)
TXINTXO: Aurkitu al duzue bidea?
TXIKI: Ez, ezta arrastorik ere.
TXINTXO: Nik ere ez.
LAMIA: (OFF) Ipotxak, etsita, etxerantz abiatu ziren. Bitartean, Edurne bere onera itzuli zen poliki-poliki. Eta ipotxak heldu zirenean,...

ALAI: (AD LIB)
MARMARTI: (AD LIB)
TXINTXO: (AD LIB)
ALFER: (AD LIB)
ARGI: (BARRE) (AD LIB)
EDURNE: (AD LIB)
TXINTXO: Ondo dago! (AD LIB)
ALFER: Hau poza! (AD LIB)
TXIKI: Esnatzen ari da!
ALAI: Hau ezinezkoa da! (AD LIB)
MARMARTI: Gaitz erdi! (AD LIB)
LAMIA: (OFF) Katagorriak laguntza eskaini zien.
KATAGORRIA: Ni Edurneren zaindaria naiz. Nahi baduzue, bere etxeraino lagunduko dizuet.
EDURNE: (AD LIB)
LAMIA: (OFF) Bidaia luzea egin eta gero, jauregira heldu ziren.
KATAGORRIA: Hor duzue, hori du bere etxea.
ARGI: Ala! (AD LIB)
ALAI: A zer polita! (AD LIB)
EDURNE: Aita, aita!
LAMIA: (OFF) Eta basora itzuli baino lehen, Edurneri begira katagorriak esan zuen...
KATAGORRIA: Agur, alaba maitea, izan zoriontsu.
AITA: (NEGAR)
LAMIA: (OFF) Gazteluan, aita oso triste zegoen, negarrari eutsi ezinik.
EDURNE: Aita, aita!
AITA: A, ene alabatxoa! (AD LIB)
EDURNE: (AD LIB)
LAMIA: (OFF) Hura zen aitaren poza! Edurne besarkatu zuen, ezin zuen sinetsi.
ARGI: Ea, goazen barrura.
ALAI: Bai, bai, goazen.
TXINTXO: (OFF) Tira, mugi ba!
MARMARTI: Banoa, banoa.
AITA: Edurne, maitea, non izan zara? Zer gertatu zaizu? (AD LIB)
EDURNE: Aitatxo! (AD LIB)
TXIKI: Eup! Kaixo! Kaixo!
AITA: E? Baina... nortzuk dira hauek?
TXIKI: Zuek badakizue, ezta? Ba, istorio hau amaitu da. Hortik aurrera, elkarrekin bizi izan ziren, egun batzuetan zoriontsu eta beste batzuetan ez, ohi denez.
BERRITSU: Eta amaordea? **25:20**
ALFER: Ihes egin zuen, kartzelara ez joateko.
TXINTXO: Baina ipuin hau ez zen honelakoa! Non da printzea?
MARMARTI: Zer printze eta printze ondoko! Guk, dakigun moduan kontatu dugu.
ALAI: Hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan... (AD LIB)
ARGIA: ...eta irten dadila, Gasteizko plazan. (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Harrezkero, Edurne jauregian bizi izan zen aitarekin. Eta egunero jasotzen zuen katagorriak uzten zion arrosa. Usaintzen zuenean ama zetorkion gogora.

EDURNE: (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Katagorriak, bere aldetik, Edurne zaintzen jarraitu zuen, horrekin konformatzen baitzen.

EIDER: (AD LIB)

LAMIA: (OFF) Amaordeak ihes egitea lortu zuen, eta oraindik ere amorruez beterik dabil. Hori da amorrua gero!

BIBLIOGRAFIA.

- AZKUE, R. M. (1989). Euskalerriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.
- Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.
- DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia
- BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia
- BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.
- CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona
- GUELBENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.
- AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.
- El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.
- PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.
- GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya
- TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya
- BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda.

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

EGILEAK

**GOIATZ
MULTIMEDIA, S.L.**

PRODUKTOREA:

Luisa Calvo

**EGITASMOA, GIDOIA
ETA GIDA DIDAKTIKOA:**

Luisa Calvo

**GIDA DIDAKTIKOAREN
EUSKARAKO ARDURADUNA:**

Joan Ignazio Bereziartua

**ZUZENDARITZA ETA
ERREALIZAZIOA:**

Mikel Val

SOINU BANDA:

Inhar Val

EDIZIOA:

Goiatz Multimedia, S.L.

TXOTXONGILOAK:

Goiatz Multimedia, S.L.

DEKORATUAK:

Sara García

TXOTXONGIOLARIAK:

Macarena Sobrón

Noemí Sobrón

Ana M^a Rodríguez

K 2 0 0 0 S . A .

Produktore exekutiboa:

Tomas Ugalde

Euskarako arduraduna:

Josu Varela

Bikoizketako zuzendaria:

Alvaro Sánchez

Sarrerako kanta:

Ana Tere Bengoetxea

Ahotsak:

Monika Erdozia

J. L. Irigoien

Pedro Arrieta

Ana T. Bengoetxea

Ramón F. De Castro

Kepa Kueto

Jon Goirizelaia

Tere Jaio

Eduardo Gorriño

Audioko teknikariak:

Ricardo Goti

Antonio González

Javier Artetxe

Nahasketak:

Gorka Lara

Juan C. Cantera

Produkzioko laguntzailea:

Ana Urresti

Koordinatzailea:

Jon Arce

EIMA 2000

**Ikasmaterial honek Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailaren egokitasun-aitormena du:
2004-02-19**

LEGE GORDAILUA: : SS-745/03

**L.C. PRODUKTOREA
tel.: 945-230715**